



IKERTZAILE DOKTOREAK UPV/EHU_n KONTRATATZEKO DEIALDIA (2024)

Ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskaeren behin-behineko zerrenda

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen oniritzia eta Gobernu Kontseiluaren onospena jaso ondoren, Ikerketa Errektoreordetzak (aurrerantzean IE) honako hau argitaratu zuen:

IKERTZAILE DOKTOREAK UPV/EHU_n KONTRATATZEKO DEIALDIA (2024)

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, Ikerketen Errektoreordetzako Ikerketa Kudeatzeko Zuzendaritzak aztertu egin ditu aurkeztutako eskabideak, honako puntu hauek azpimarratuz:

- a) Eskatzaileek 3. oinarrian jasotako baldintzak betetzea.
- b) Eskaria bermatzen duen zuzendari zientifikoak 4. Oinarrian jasotako baldintzak betetzea.
- c) Eskaria bermatzen duen ikertaldeak 5.oinarrian jasotako baldintzak betetzea.
- d) 10. Oinarrian jasotako dokumentazioa aurkeztea.

Behin-behinean onartutako eskabideek, zuzendu beharreko alderik ez badute, ez dute izapide gehigarrik egin behar.

Baldintzapean, behin-behinean onartutako eskabideek zuzendu beharreko alderik ez badute ez dute izapide gehigarrik egin behar. Pertsona horien onarpena deialdian, ezinbestekoa da zuzendari zientifikoak seiurtekoen eskakizuna egiaztatzea.

Behin-behinean baztertutako edo onartu direnak baina zuzendu beharreko alderidiren bat duten eskaerek 10 egun baliouduneko epea izango dute **(2024ko uztailaren 16tik 30era, biak barne)** adierazitako akatsak zuzentzeko edo nahi dituzten alegazioak aurkezteko. Epe hori igaro ondoren, zuzendu gabeko eskaerak atzera egindakotzat joko dira.

Deialdiaren behin-behineko ebazpena argitaratu aurretik (11. oinarrian zehaztutako irizpideen arabera ebaluatzeko behin betiko onartutako eskabideen puntuazio osoak jasoko ditu), onartutako merezimenduen behin-behineko zerrenda ere argitaratuko da, eskabideak aurkezteko fasean erregistratutako merezimenduak berrikusita.

I. eranskinean, halaber, 11. oinarrian jasotako merezimenduen puntuazioak argitaratu dira. Merezimenduei dagokienez, honako alderdi hauek berrikusi dira:

- **Euskararen jakite maila** (11.1.5. oinarria)



- ***Ikertzaile hasiberrientzako pizgarria eta genero ikuspegia*** (11.1.6. oinarria)

Eskatzaileek IEk onartutako merezimenduak egiaztatu ahal izango dituzte, eta, okertzat jotzen badituzte, adierazitako akatsak zuzendu edo nahi dituzten alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte, lehen adierazitako 10 egun balioduneko epean: **2024ko uztailaren 16tik uztailaren 30era, biak barne.**

Alegaziorik aurkeztu ezean, ulertuko da hautagaia ados dagoela merezimendu horiek onartzearekin, eta ez da beharrezkoa izango izapide gehigarririk egitea.

Zuzenketak eta alegazioak aurkezteko, deialdiaren 10. oinarrian adierazitako hiru bideetako edozein erabili beharko da.

Leioan, 2024ko uztailaren 15ean

**Ikertzaileen kontratazio eta prestakuntzarako baliabideen gesioaren Atala
Ikerketaren Arloko Errektoreordetza**